ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 18a, asteazkena • 133 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Behin betiko onestea Peñacerrada-Urizaharreko udalerriko eraikinetan eguzki energia hartu eta aprobetxatzeko instalazioak arautzen dituen udal ordenantza

Korporazioaren Osoko Bilkurak 2026ko irailaren 15ean hartutako Peñacerrada-Urizaharreko udalerriko eraikinetan eguzki energia hartu eta aprobetxatzeko instalazioak arautzen dituen udal ordenantza onartzeko hasierako akordioa jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren eta horren barruan ez da araudiaren inguruko erreklamaziorik aurkeztu, akordioa behin betiko izatera igotzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak ezartzen duenari jarraituz, oso-osorik ematen da argitara onartutako ordenantza, eta argitaratzen denetik sartuko da indarrean.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Goiko Epaitegiko Administrazioarekiko Auzietako Atalaren aurrean. Horretarako 2 hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikuluaren arabera.

Hori guztia, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izateari kalterik egin gabe.

PEÑACERRADA-URIZAHARRA UDALERRIKO ERAIKINETAN EGUZKI-ENERGIA HARTU ETA APROBETXATZEKO INSTALAZIOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Garai batetik hona, bai legeriaren eskakizunengatik, bai hazkunde-eredu iraunkorragoarekin bat datozen jarduketengatik, eguzki-energia hartzeko sistemen instalazioen eskaera handitzen ari da udalerrian. Hori guztiz positiboa da, baina instalazioen alderdi teknikoei buruzko nolabaiteko araudi juridikoa egon arren, ez dugu hartze-sistema horien kokapenari buruzko hirigintza-araudirik.

Energia-arrazoi nabariengatik instalazio horiek jartzea sustatu behar bada ere, egia da, halaber, horrek ezin diela kalterik egin behar hiri- eta landa-paisaiei. Hori dela eta, ordenantza honen bidez, instalazio horiek jartzeko aukera emateaz gain, eguzki-energia hartzeko sistema horiek jartzeko araudia osatu nahi da hirigintzaren ikuspegitik. Horretarako, alde batetik, instalazio bakoitzaren ezaugarrien arabera aurretiazko jakinarazpenaren izapidean jarraituko diren prozedurak ezarriko dira, eta, bestetik, instalazioak jartzea eta paisaia-inpaktua babestea edo minimizatzea uztartuko dira.

Ordenantza honen helburua da instalazio horiek udalerriko edozein eraikinetan jartzea baimentzea eta arautzea, baldin eta eraikin horien kokapena eta ezaugarriak direla-eta paisaiaren irudi orokorrean funtsezko aldaketarik eragiten ez badute.

Irizpide orokorraren xedea da instalazio horiek udal-mugarteko eraikin guztietan baimentzea, salbu eta kokapenagatik (paisaiaren ikuspegia) nahiz Plangintzak kontuan hartutako ondasun babestuen katalogoan izateagatik bereziki arreta berezia jasotzen duten eremu eta eraikin zehatzetan.

Azkenik, komeni da gehitzea ordenantza honek eraikinetan eta haiei atxikitako elementuetan horrelako instalazioak nola kokatu arautzen duela soilik, eta inola ere ez duela arautzen eguzki-solairuak edo "baratzeak" jartzea; instalazio horiek Plangintza Orokorreko lurzoru urbanizaezineko kategoria jakin batzuetan baimendutako erabileretako batean jaso beharko dira.

Hori guztia, ekainaren 1eko 5/2023 Legean aurreikusitakoaren arabera, autokontsumoaren izapidetzea errazteko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzen duena.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. Ordenantzaren xedea

Ordenantza honen xedea da Peñacerrada-Urizaharra udalerrian eguzki-energia hartzeko instalazioak jartzeko arauak ezartzea, bai zelula fotovoltaikoen panelak, bai panel kolektore termikoak.

2. Artikulua. Aplikazio eremua

Aplikazio-eremu gisa ezartzen dira Peñacerrada-Urizaharra udalerri osoko instalazioak.

3. Artikulua. Definizioak

Ordenantza honetan definitutako eguzki-atzipenerako elementuak bi panel-motari dagozkie, egiten duten energia-bihurketaren arabera, energia termikoa edo energia elektrikoa:

–Eguzki-instalazio termikoak: eguzki-erradiaziotik datorren energia fluido bat berotzeko aprobetxatzen dute. Ur bero sanitarioa lortzeko eta espazioen klimatizaziorako erabiliko dira.

–Eguzki-instalazio fotovoltaikoak: eguzki-erradiaziotik datorren energia aprobetxatzen dute energia elektrikoa zuzenean ekoizteko, eta eguzki-erradiazioaren eraginpean jartzean elektrizitatea sortzeko material erdieroale batzuen propietate fisikoak baliatzen dituzte.

Ordenantza honek panel fotovoltaikoen eta termikoen eguzki instalazioak arautzen ditu, bata zein beste; zein lurzorutan dauden kontuan hartuta.

II. KAPITULUA. HIRI-LURZORUKO INSTALAZIOAK

4. Artikulua. Instalazioen helburua

Eguzki-instalazioak baimenduko dira, baina soilik instalazio horiek egongo liratekeen eraikinen energia-beharrak zati batean edo osorik estaltzeko direnean, dela ur bero sanitarioa sortzeko eta espazioak klimatizatzeko (eguzki-instalazio termikoak), dela autokontsumorako elektrizitatea sortzeko, Energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

5. Artikulua. Paisaia babestea

1. Ordenantza honetan araututako eguzki-energiako instalazioei hirigintza-arau hauek aplikatuko zaizkie: batetik, paisaiaren ikuspegia desitxuratzea edo paisaiaren edo arkitekturaren harmoniari kalteak eragitea eragoztera bideratutakoak, eta, bestetik, ondarea babesteko katalogo edo hirigintza-planetan sartutako eraikinak, multzoak, inguruneak eta paisaiak zaintzera eta babestera bideratutakoak. Udal-organo eskudunak egiaztatuko du instalazioak hirigintza-arauetara egokitzen direla, eta haien integrazio arkitektonikoa baloratuko du, bai eta balizko ingurumen-onurak eta -galerak ere.

Era berean, kontuan hartuko du instalazio horiek ez dutela eraikin mugakideetan bizi diren pertsonak molestatzeko moduko islarik sortuko maiz.

2. Panelak eraikinetan jartzean, honako baldintza hauek bete beharko dira:

— Eguzki-plakak estalkien isurkietan integratuko dira, eta malda berari eutsiko zaio une oro. Panelek sortutako planoa estalkiak sortutako planotik teknikoki ahalik eta hurbilen egongo da, eta ahalik eta dimentsio txikiena aterako da.

— Fatxadetan ezin da instalatu.

— Oro har, panelen kokapena eremu erregular bat osatu beharko du. Panelak sakabanatzeko behar bezala justifikatu beharko dira hirigintza-zerbitzuaren aurrean.

— Okupatutako azalerak muga hauek izango ditu:

• Eguzki-panelak hegalen, mehelinen, bizkar-limen, limatxokonen eta gailurren ertzetatik 0,60 metrora egongo dira, gutxienez.

• Panel bakoitzaren ertzetako bat teilatu-hegalaren ertzarekiko paralelo joateko moduan jarri behar da.

Katalogatutako eraikinen kasuan (Babes berezia. Ertaina edo oinarrizkoa), erabiliko den irtenbidea izango da administrazio-organo eskudunak aldeko irizpena ematen duena. Horretarako, aldez aurretik txostena eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko-Arkitektonikoaren Zerbitzuari.

3. Berariaz debekatuta dago edozein hoditeriaren eta bestelako kanalizazioren fatxadetatik ikusteko moduko trazadura egitea, salbu eta proiektuan, xehetasunez, eraikinaren estetikan behar bezala integratzen dela bermatzen duen eraikuntza-soluzioa aurkezten bada.

4. Oin berriko eta ordezte-obretan, eraikinaren diseinuak eta osaerak kontuan hartuko ditu eguzki-energia hartzeko panelen errendimendu optimorako egokienak diren inklinazio- eta orientazio-baldintzak.

6. Artikulua. Eraikin bati lotutako lurzoru libre pribatuko instalazioak

Lurzoru libre pribatuan eguzki-panelak jarri ahal izango dira, baldintza hauetan:

• Hornituko duen eraikinaren lurzati berean kokatuko da instalazioa, eta mugakideetan ere onartuko da.

• Instalazioak, euskarriak eta bestelako elementuak barne, mugetatik aldenduko dira beraien altueraren berdina den tarte batean, eta gutxienez 2 metro.

III. KAPITULUA. LURZORU URBANIZAEZINEAN DAUDEN INSTALAZIOAK

7. Artikulua. Aurretiazko baimena

1. Eraikuntza berriei lotutako instalazioen kasuan, ezarri beharreko jarduera berriak, hala badagokio, lurzoru urbanizaezinean ezartzeko eskumena duen Sailaren nahitaezko baimena lortu beharko du.

2. Bere garaian indarrean zegoen legeriaren arabera ezarritako eta lehendik dauden eraikinei lotutako instalazioen kasuan, eguzki-panelak instalatzea baimendutzat jotzen da, eta indarrean dagoen araudiaren arabera izapidetuko da.

8. Artikulua. Eraikinen gaineko instalazioak

1. Bertako planoen gainean jarriko dira. Panelen orientazioak aldatu ahal izango dira, eguzkiari probetxu hobea ateratzeko, betiere isurkiaren planoarekiko perpendikularki neurtutako metro bateko gehieneko altuera gainditzen ez badute. Okupatutako azalera isurkiaren perimetrotik metro batera jarriko da gutxienez.

2. Estalki lau edo zabaltzetan instalatu ahal izango da, azalera- edo orientazio-mugarik gabe.

3. Oro har, ez da baimentzen fatxadetan instalatzea.

4. Peñacerrada-Urizaharreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko eraikinen katalogoan sartutako eraikinetan eguzki-panelak instalatzeko eskaerak Arabako Foru Aldundira bidaliko dira, aurretiazko txostena egin dezan. Txosten horren edukia loteslea izango da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

9. Artikulua. Sare elektrikoarekin konektatzeko linea elektrikoak

Instalazio fotovoltaikoak berekin badakar sare orokorrarekiko konexio-punturaino energia garraiatuko duen linea elektriko bat eraikitzeko beharra, aldez aurretik espedientea izapidetu beharko da hura baimentzeko. Sare hori baimenduta ez dagoen bitartean, ezin izango da panel fotovoltaikoak instalatzeko lizentziarik eman.

IV. KAPITULUA. IZAPIDETZEA

10. Artikulua. Tramitea Udalarekin

Ekainaren 1eko 5/2023 LEGEAK aldatutako Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207. artikuluaren idazketa berriaren arabera, autokontsumoaren izapidetzea errazteko, ezabatu egiten da obren udal-lizentzia aldez aurretik eskatzeko baldintza, eta aurretiazko komunikazio batekin ordezkatzen da, ibilgailu elektrikoak kargatzeko eta autokontsumorako eguzki-energia aprobetxatzeko etxeko instalazioetarako.

Instalazio horiek aldez aurreko jakinarazpenaren izapidea bete beharko dute, honako kasu hauetan izan ezik: kultura-ondasun edo katalogatutzat jotako eraikinetan edo multzoetan egiten direnean, eraikinaren zimenduei edo egiturari eragiten dietenean; edo, aplikatu beharreko ingurumen-araudiaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren mende daudenean. Kasu horietan, hirigintza-lizentzia beharko da.

Aurreko paragrafoan jasotako aurretiazko jakinarazpenak, gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu: obren aurrekontu xehatua, egikaritze-lekuaren planoak eta argazkiak, teknikari eskudun batek idatzitako memoria bat, instalazioaren potentzia adierazten duena, eta instalazioa jarriko den eraikinaren sostengu-ahalmena egiaztatzen duen justifikazioa.

Gainera, aldez aurreko komunikazioan berariaz jasoko da:

• Egin beharreko obrek ez dakartela jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea, eta osorik lursailaren barruan egingo direla, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) ezarritako lerrokaduraren mugak gainditu gabe, ezta hormen ainguraketekin edo beste eraikuntza-elementu osagarri batzuekin ere.

• Konpromisoa hartzen duela obrak egin bitartean beharrezkoak diren segurtasun eta osasun neurriak hartuko dituela, indarrean dagoen legediaren arabera.

• Obran sortutako hondakinak indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatzeko ardura hartzen duela. Fibrozementua duen edozein material indarrean dagoen legediaren arabera manipulatuko du Amianto Arriskudun Enpresen Erregistroan (AAEE) inskribatutako kudeatzaile baimenduak.

Udalak edozein unetan egiaztatu ahal izango du eskatutako baldintzak betetzen direla, eta, ebazpen arrazoituaren bidez, jarduketa eteteko agindu ahal izango du, baldin eta eskatutakoa betetzen ez badu.

Instalazioa amaitu ondoren, energia elektrikoa sortzeko instalazio berriak martxan jartzeko erantzukizunpeko adierazpenaren izapidea egin izanaren justifikazioa aurkeztuko da, Arabako Industria Administrazioko Lurralde Ordezkaritzan izapidetua.

11. Artikulua. Enpresa instalatzaileak

Instalazioak enpresa instalatzaileek egin beharko dituzte, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren 14. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta behar bezala baimendutako erakunde batek homologatutako elementuak bakarrik erabili ahal izango dira.

12. Artikulua. Egiaztatzeko eta mantentzeko betebeharrak

Jardueraren titularrak, jabe indibidualak eta/edo jabeen erkidegoak, instalazioa funtzionamendu- eta efizientzia-egoera ezin hobean mantentzeko beharrezkoak diren mantentze-lanak eta konponketak egin beharko dituzte, sistemak behar bezala jardun dezan, proiektuan definitutako

prestazioen eta dagozkion erabilera- eta mantentze-jarraibideen arabera; baldin eta beren eraikinetan ur beroa ekoizteko eguzki-energia termikoa hartzeko eta erabiltzeko sistemak edo elektrizitatea sortzeko eguzki-energia fotovoltaikoa hartzeko sistemak badaude, eta horiek instalazio propioa zein partekatua badira.

Peñacerrada-Urizaharra, 2026ko azaroaren 10a

Alkatea
ALFREDO VICUÑA IBÁÑEZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.18 06:11:58 Z